



ERROTULUAK EUSKARAZ JERTZEKO 2019KO DIRU-LAGUNTZA

PORTUGALETEKO EUSKARA SAILA

Xedea:

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduetako **errotuluak euskaraz jartzeko** diru-laguntza bideratzea.

Onuradunak:

Portugaleten kokatuta dauden **merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen** establezimenduak, **errotuloak 2018an eta 2019an** instalatu badute eta aurrekoetan diru laguntza hauen onuradunak izan ez badira.

Diru-laguntza hauen **aplikazio eremutik kanpo** daude helburua Euskara normalizatzea duten entitateak, herri entitateak, banketxe eta aurrezki kutxak eta 300 m²-tik gorako eremua duten establezimenduak.

Proiektuak:

Errotulua diogunean haxe hartzen dugu kontuan: batetik, lokalaren kanpoaldean jarritakoa eta, halaber, toldoetan eta ibilgailu komertzialetan jarritako; eta bestetik, eraikinen bebarruetako direktorioetan kokatutakoak, jardueraren solairua eta ate zenbakia adierazten dituztela.

Errotuluaren testuari dagokionez

- Testuak zuzen idatzita egon behar du.** Honetaz Udalaren Euskara Zerbitzuak aholkua eskainiko die hala eskatzen dutenei.
- Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa denda,...) derrigor agertu behar du errotuluan;** adibidez "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". Ez dira diruz lagunduko izen propioak, toponimoak edota abizenak, soilik agertzen dituzten errotuluak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Errotulua euskaraz solilik idatziz gero, **gastuaren %75eko dirulaguntza** emango da, betiere **600 euroko mugapean**.

Errotulua, berriz, bi hizkuntza ofizialetan idatziz gero, **gastuaren %60ko dirulaguntza** emango da, betiere **400 euroko mugapean**.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diru-laguntza **eskabidea behar bezala beteta**.
- Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren **NANren fotocopia**.
- Egindako gastuaren **jatorrizko faktura**, 2018koa edo 2019koa, edo horren fotokopia konpultsatua.
- Errotulua jarrita dagoela frogatzen duen **argazkia**; errotulu bat baino gehiago denean, argazki bana aurkeztu behar da.
- "**Datuen alta edo aldaketa**" izeneko dokumentua.

Eskatzeko, ebazteko eta jakinarazteko epeak:

2019ko urriaren 5era arte edo aurrekontu erabilgarria agortu arte.

Portugaleteko Merkataritzako Bulego Teknikoa

Portugaleteko Udala
Merkataritza Saila
Gizarte-etxea, 4. solairua
48920 Portugalete - Bizkaia

Tel. 94 472 93 53 / Fax 94 472 92 94
comercio@portugalete.org
Jendaurreko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara